

## XVIII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

### Otoitza

Zatozkie lagun, Jauna, zeure zerbitzariei  
eta ager iezaiezu beti zeure bihotz ona otoizka ari zaizkizunei;  
eta, egile eta nagusi aiotortzen baitzaituzte,  
emaiezu bizi berria  
eta zaindu itzazu beti bizi berri horretan.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 55, 1-3

*Zatozte, eta jan ordaindu gabe.*

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:  
«Egarri zareten guztiok, zatozte uretara;  
dirurik ez duzenok ere bai;  
zatozte, erosi garia eta jan ordaindu gabe,  
ardoa eta esnea hutsean.  
Zergatik erailki dirua, janari ez den gauzetan?  
Entzun Niri, entzun eta ondo jango duzue;  
janari gozoen atsegina izango duzue.  
Erne belarriak, etorri Niregana;  
entzun, eta bizkortuko zarete.  
Betiko elkargoa egingo dut zuekin:  
Dabidi agindu nion agintzaria».

ERANTZUN SALMOA: Sal 144, 8-9. 15-16. 17-18

**R/. Zabaltzen duzu zeure esku hori, Jauna,  
eta asea ematen diguzu.**

Kupibera da Jauna eta errukiorra,  
berant-haserre eta guztiz onbera.  
Ona da Jauna guztientzat,  
errukior, Berak egin dituenentzat. R/.

Guztien begiak daude Zuri begira,  
Zuk ematen diezu beren garaian janaria.  
Zabaltzen duzu zeure esku hori,  
pozik ematen asea bizidun denei. R/.

Zuzena da Jauna bere bide guztietan,  
zintzoa bere lan guztietan.  
Bertan dago Jauna deitzen dutenengandik,

zintzoki deitzen duten guztiengandik. R/.

II. IRAKUGAIA: Erm 8, 35. 37-39

*Ezingo gaitu ezerk aldendu,  
Kristorengan agertzen den Jainkoaren maitasunetik.*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Nork aldenduko gaitu Kristoren maitasunetik? Nahigabeak, larriak, erasoaldiak, goseak, jantzirik ezak, arriskuak, ezpatak? Hala ere guzti horietan garaile ateratzen gara gu, maite izan gaituen Harengatik.

Badakigu ziur: ez heriok, ez bizik, ez aingeruk, ez nagusik, ez indarrek, ez oraingok, ez gerokok, ez izarrek, ez zeruk, ez itsas leizek, ez beste izakik, ezingo gaituela aldendu, Jesu Kristo gure Jaunaren agertzen den Jainkoaren maitasunetik.

EBANJELIOA: Mt 14, 13-21

**Aleluia:** Mt 4, 4b

R/. Aleluia.

V/. Gizona ez da ogiz bakarrik bizi,  
Jaungoikoaren ahotik ateratzen den  
hitz guztitik baizik. R/.

*Jan zuten denek, ase ziren arte.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen heriotzaren berri izan zuenean, Jesus itsas ontzian leku baztertu eta baketsu batera joan zen; jakin zuen hori jendeak, eta oinez jarraitu zion hirietatik. Ontzitik ateratzean, jendetza handia ikusi zuen Jesusek; erruki izan zituen, eta gaixoak sendatzen hasi zen. Ilunabarrean, ikasleak hurbildu eta honela mintzatu zitzaizkion: «Leku bazterra da hau, eta berandu da. Bidal ezazu jendea; doazela auzoetara, eta eros dezatela jatekoa». Jesusek orduan: «Ez dute joan beharrik; emaezue zeuek jaten». Haiek erantzun: «Ez baitugu hemen, bost ogi eta bi arrain besterik!» Eta Jesusek: «Ekarzikidazue».

Jendea belar gainean eserarazi ondoren, hartu zituen bost ogiak eta bi arrainak; eta, begiak zerura jatorik, bedeinkapen otoitza egin zuen, zatitu zituen ogiak, eta ikasleei eman zizkien; eta ikasleek jendeari. Jan zuten denek, ase ziren arte; eta gelditutako hondarrekin hamabi saski bete bildu zituzten. Jan zutenak, bosten bat mila gizon ziren, emakumeak eta haurrak gabe.

### **Oparigaien gainekoa**

Jainko guztiz ona, santu egizkizu dohain hauek  
eta, eukaristi oparia onarturik,  
egin gaitzazu gu ere Zuretzat betiko opari.  
Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Zaindu itzazu beti, Jauna,  
zeruko dohainez berritu dituzunak;  
eta honela indarberritzen gaituzunok  
eraman gaitzazu betiko salbamenera.  
Jesu Kristo.